



EBAZPENA, 2021eko uztailaren 2koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, 2021/2022ko ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko ordezkogaien behin betiko zerrenda argitara ematen duena.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan irakasleen aldi baterako premiak betetzeko ordezkogaien zerrenda kudeatzeari buruzko araudia onartzen duenak, V. kapituluan eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko lan-legepeko irakasle eta hezitzaileentzako hitzarmen kolektiboak III. eranskinean xedatutakoaren arabera, 2021/2022ko ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko ordezkogaien zerrenda urtero birbarematzeko prozedura egin behar da.

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2021eko martxoaren 5eko Ebazpenaren bidez, aipatutako birbarematzeko prozedura ireki zen.

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2021eko maiatzaren 7ko ebazpenaren bidez argitara eman zen 2021/2022ko ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko izangaien behin-behineko zerrenda. Zerrenda horretan 2021eko martxoaren 5eko ebazpenak seigarren atalean azaltzen dituen egoeretan zeunden pertsonak integratu ziren, eta bestalde, 2021eko martxoaren 5eko ebazpenaren zortzigarren atalean azaltzen den egoeretan zeunden pertsonak zerrendetatik at geratu ziren; halaber, 2021eko maiatzaren 10etik 14ra arte epea ireki zen erreklamazioak aurkezteko.

Epe hori igarota, aurkeztutako erreklamazioak berrikusita eta antzemandako akatsak zuzendu ondoren (besteak beste, Hezkuntzako sailburuaren 2019ko martxoaren 1eko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduraren bidez maisu-maistren kidegoko irakasle karrerako funtzionario izendatu ziren pertsonak behin-behineko zerrendan ez ziren sartu behar), 2021/2022 ikasturterako ordezkapenatarako ordezkogaien behin betiko zerrenda argitaratzen da.

Horregatik,

EBAZTEN DUT:

Lehena.- Argitara ematea 2021/2022ko ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko ordezkogaien behin betiko zerrenda.

Bigarrena.- Zerrenda horiek <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-langileak/> web orrian www.irakasle.eus estekan eta irakaslegunea ingurunean (www.irakasle.eus) emango dira argitara. Era berean, hautagai bakoitzak bere erreklamazioaren emaitza kontsultatu ahal izango du, dagokion arrazoiarekin, hala badagokio, "Erreklamazioaren emaitza kontsultatzea" estekan.



Hirugarrena.- Behin betiko zerrenda horren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, zerrenda adierazitako Interneteko helbidean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; hau da, 2021eko uztailaren 3tik abuztuaren 2ra bitartean, biak barne. Errekurtsioak aurkez daitezke Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako edozein modutan.

**BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 2